

2013KO MAIATZAREN LEHENA. ZER UTZIKO DUTE ZUTIK?

Egunon guztioi:

Gobernuek esaten dute “ez dagoela alternatibarik” beren menpekotasuna estaltzeko. “Mobilizazioek ez dutela ezertarako balio” diote, geure burutik itxaropena kentzeko, eta depresio moduko bat hedatzeko. Politika bidegabeekin jarraitzeko, noski. Aldaketa politiko eta sozialean itxaropenik eduki gabe ezin da ibili lan militantean. Eta guk horretan sinesten dugu.

Zer gertatzen da Grezian eta Portugalen? “Giza-hondamendia” dagoela diote sindikatuek. Hori da hona datorrena: hondamendi humanitarioa. Eta hori ezkutatzeko, gezurrak esaten dituzte.

Gezurrak. Enplegua. Gero eta gutxiago eta dagoena gero eta prekarioago. Enplegua ez da inola ere lehentasun bat, koartada baizik, nahi dituzten erreformak lortzeko.

Gezurrak. Pentsioak. Hiru erreforma bi urtetan. Jubilazioa 67 urtetik gora. Jasangaitza. Onartezina.

Gezurrak. Ogasunek onartzen dute diru-bilketa aurten ere behera doala. Fiskalitatea aldatu zen ez badute murrizketa gehiago etorriko dira. Murrizketa gehiago, gobernuetan alderdi bat edo bestea egon arren.

Gezurrak. Beste erreforma laboral bat. Zergatik ez. Azkena “laburra” geratu dela dio Patronak. Helburua enpresa inpunitate esparru bihurtzea da, enpresarioak hartzen dituen neurriak atzera bueltarik ez izatea, errekurtsorik gabe geratzea.

Gezurrak. Erreforma bakoitza eta murrizketa bakoitza egiten dutenean azkena dela diote. Ez, erreforma eta murrizketa bakoitzak beste bat dakar besapean.

Gezurrak. Orain arte prestazio unibertsalak zirenei, doan ematen ziren horiei, prezio pribatua jarriko diote; hor dugu kopagoa, lehen urratsa.

Gezurrak. 2012. urtea txarra izan da. 2013 txarragoa dator, eta 2014 gero eta txarrago. Neurri hauekin ez da inola ere egunsentia ikusten. Ekonomia erreala hondatzen dute erabat, eta horrekin batera, enplegua.

Zer utziko dute zutik? Krisia sortu zutenek krisia erabiltzen dute ez krisiarekin amaitzeko, baizik eta beren aldeko erreformak lortzeko. Helburua da esparru sozial guztia txikitzea.

POLITIKA. Ezin da onartu kapitalarekiko duen menpekotasuna. Non dago politika? Non demokrazia? Bi bide daude: edo politika berreskuratu, edo totalitarismoa.

MOBILIZAZIOA. Beste biderik ez dago. Borroka kolektiboa. Ezinbestekoa da defentsa kolektiboa indartzea. Enpresetan eta gizartean politika aldarazteko. Ez dago beste biderik.

KONTZIENTZIAK ASTINTZEKO GAUDE. BESTE BATZUK LOKARTU NAHI DITUZTE. Klase politikoan gehienak kontzientziak lokartzen saiatzen dira. Lokartu, gizartea anestesiatu. “Alternatibarik ez dago” esaten dutenean demokrazia ukatzen dute; izan ere, alderdi politikoak eta parlamentuak kapitalaren esanetara daude, eta hau ezkutatu nahi dute. Aldiz, esaten dutenean “mobilizazioa alferrik da; greba orokorrak ez du balio”, beldurrez daudelako da (inkestetan amildu egiten dira), eta itxaropena kendu nahi digutelako; depresio bat eragin nahi digute, paralizatuta geratzeko. Baina guk ez dugu hori onartuko. Inola ere ez. Borroka beharrezkoa da, eta borrokan jarraituko dugu.

ELA eta EUROPAR ITUNA

2005. urtean EBko Itunari buruzko erreferendumean baiezkoa eskatzen ez zuena ez omen zen “modernoia”. Boterearen makineriak hura babestu eta bultzatu zuen. Aukera bakarra zegoen: modernoia izatea, ala antisistema. Gogoratzen al zarete? Ez omen zegoen erdibiderik. ELAk EZezkoa esan zuen orduan. Gaur aurkako jarrera hura askoz hobeto ulertzen da.

Kanpaina ezin gezagoa izan zen. Itunaren alde egin zuten alderdi politiko nagusiek, patronalak, CCOOek eta UGTk; izan ere, bi sindikatuok kanpaina handi bat egin zuten. Doako propaganda tarteak haiei eman zizkieten; informazio instituzionala propaganda hutsa izan zen. Aurka geundenoi, berriz, komunikabide publiko eta pribatuetan ez ziguten tokirik eman. Lotsagarri izan zen. Haatik, Euskal Herrian Itunak zentsoaren %25etik beherako babes baina ez zuen lortu. Eta “demokratikoki” aurrera egin zuen. Europako estatu batzutan erreferendumean ezezkoa nagusitu arren, tranpa eginez bideratu zuten onarpen ofiziala.

Zer esan genuen Itunari buruz? Politika ekonomiko, sozial eta laboraletan eredu neoliberala ezartzen zuela eta europar erakundeei (Batzordea, EZB) politika neoliberalak bateratzeko eginkizuna ematen ziela. Kapitalarentzako mugimendu askatasuna, malgutasun laborala, dumping-a (sozial, laboral eta fiskala); zerbitzu publikoak “interes ekonomikoko zerbitzu” gisa aurkezten ziren...

Lehen go lepotik burua. Zertan ari dira orain orduan baiezkoa eskatu zutenak? Ituna aplikatzen; politika antisoziala ezartzen, europar eredu soziala txikitzeko. **Itunak helburu bat zuen, Europa guztian politikari ezer egiteko tarte politikorik ez uztea.**

Itun harekiko baietzarekin gobernuek eta alderdiek ontzat eman zuten jarri nahi zitzaizkien eskuburdinak. Orduan arduragabeak izan ziren, gaur bezalaxe. Orain gobernuak, inoiz baino otzanago, agenda hori aplikatzeko beharrezko eragilearen papera hartu dute.

Itun hura medio ez zen subiranariak utzi erakunde politiko goren baten esku. Inola ere ez. Benetan subiranía nori eman zioten? Finantza-botereentzat eta multinazionalentzat lan egiten duten erakundeei.

Zer egin nahi dute politika horiekin? Krisia amaiarazi ez, behintzat, ezta langabezia ere. Langabezia koartada dute. Benetako helburua, berriz, krisiaz eta berak eragiten duten shock-az baliatzea kapitalak nahi dituen erreformak gauzatzeko. Bada finantza munduko pertsonaje ezagun bat, **Guillermo de la Dehesa**, eta honek argi asko adierazi

zuen: “Orain dugu aldaketa -erreforma- guztiak egiteko une egokia; gero, gauza hobeto doanean, ezinezkoa izango da”. Argiago ezin esan.

Beste helburu bat ere badute: Oraindik geratzen den oposizio sindikal, sozial eta politikoa deusezte, politikan eta ekonomian erabateko boterea izateko; dena negoziogai pribatu bihurtzeko eta, horrela, kapitala metatzeko beste fase bat hasteko.

Krisia ez zen 2008an hasi. Benetako jatorria neoliberalismoak lortu zuen desarautzean dago; eta hau kontserbadore zein “sozialdemokratek” egin dute.

Thatcher hil da, baina bere pentsakera eta praxi politikoa Europako politikan oso hedatuta daude. Neoliberalismoa egoskorra da; eutsi egiten dio, badaki zain egoten, eta aukera ikusten duenean, gogotik ekiten dio. Hori da krisia neoliberalentzat. Baina, zer egiten du ezker politikoa? Jakin ote daiteke krisi honek ezkerrentzat zer esan nahi duen? Zoriturrez, ez dakigu.

TROIKA

TROIKAren eginkizuna gauza bat bermatzea da, Europar gobernuak bildotsak bezain esanekoak izango direla. Nazioarteko Diru-Funtsa (bere zuzendariak status berezia du, zeini esker ez baitu inon zergarik ordaintzen), Europar Batzordea eta EBZ esperimentu totalitario bat ari dira egiten. Hauen aginduak aplikatu diren tokietan pobrezia zeharo hazi da. Hiru erakunde horiek ez dute atsedetik hartzen. Esaterako, defizit helburua “malgutu” behar bada (bai baitakite ez dela beteko) baldintza bat ezartzen dute, aldi berean erreforma eta murrizketa gehiago egitea. Hortan ari dira.

Ez dago haiekin ezer hitzartzeko aukerarik. Garaitu egin behar ditugu, mundu zein tokiko mailan. Tokian tokiko borrokan garaitu behar ditugu, gobernuztatutako agenda beldurgarri hori aplikatzea jasangaitza izan dadin; borroka nazioarte mailan koordinatu behar da. Nork bere esparruan, bere nazioan borrokarik egiten ez badu, ez da aldaketarik izango.

Duela gutxi Greziako sindikatu baten kongresuan izan gara. Ba al dakizue egoera han nola ikusten duten? Giza-katastrofea aipatzen dute. Jendea goseak amorratzen dago; haur askok ez du jatekorik; eskolak itxi egiten dituzte; kontsulta medikoak ordaindu ezineko bihurtu dira... eta demagogia eta populismoarentzat lur emankorra prestatzen dute, eskuin muturrarentzat ezin egokiagoa.

Portugalen, herritarren %24 pobrea da. Portugalek hondoa jo du, eta gero eta murrizketa gehiago exijitzen diote. Hango Auzitegi Konstituzionalak indargabetu egin zituen gobernuak erabakitako murrizketa batzuk, guztiengan eragin bera ez zutelako eta diskriminazioa zekartelako; ahulenean ordaintzen dute. Epai honen ondoren gobernuak hausnartzen ari da guraiza non sartuko duen, epaileen oztopo honi itzuri egiteko.

Zergatik nabarmentzen dugu Greziaren eta Portugalen kasua? Gauzen nondik norakoak erakusten dizkigutelako. Behar bada jende arruntak, beldurrez bizi denak, ez du ikusten zer datorren. Baina erakunde sindikal eta politikook ezin dugu esan neoliberalismoaren ondorioak zein diren ez dakigunik. Gauzak argi esan behar ditugu. 2009ko maiatzaren 21ean esan genuen bezala “politikak aldatu ezean, murrizketak etorriko” zirela; orain arrazoiak dugu: politika hauek txirotze laugarria hedatzen dute. Erakunde sindikal eta politikook ezin dugu ezikusiarrena egin. Ezin dugu errealitatea ezkutatu, ez itxurak

egiten ibili. Argi hitz egin behar dugu, oso argi gainera.

Bitartean, munduko aberastasunaren herena paradisu fiskaletan gordeta dago. Enpresa handiek eta bankuek -IBEX-35 zerrendan dauden guztiek- paradisuetan dute jarduera, zergak ordaintzea saihesteko. Krisiaren hasieran esan zuten “paradisu fiskalen eragin perbertsoa” zuzentzeko asmoa zutela. Baina ez dute ezer egin. Kapitalen ihesa areagotu egin da.

NON GERATZEN DA DEMOKRAZIA? GALBRAITH. “Herritarrei dagokie politika aldaketa bat eragiteko ardura”. Hala izan da, eta hala izango da. Gizon honi galdetzen diotenean ea gobernuek maniobrarako taraterik ba ote duten hau erantzuten du: “Hala eaz balitz, hobe legoke hauteskundeak ez egin eta funtzionarioak jartzea Morgan Stanleyren agindutara, berdin bailitzateke nork irabazten duen”. “Boto-emaileak alda dezakeen bakarra agintarien izena bada, baina politikak ez, demokraziarik ez dago”.

Zer utziko dute zutik? Arlo sozialean, laborean eta demokrazian. Kezkatzekoa da. Nork irabaziko du? Politika herritarren zerbitzutan egon behar dela dioteneak, ala totalitarismoak? Ez dugu astakeriarik esan. Historia ezagutuz gero, argi dago hala dela. Politikak irabaziko du, ala totalitarismoak.

ESPAINIAR ESTATUA

PSOEk eta PPK Konstituzioan finkatu zituzten Troikaren exijentziak. Zor publikoaren eta defizitaren diziplinaz baliatzen dira eskubide laboral eta sozial guzti-guztiak txikitzeko.

Salbuespenezko legeak egiten dituzte EUREN politika Estatu guztian aplika dadin (Aurrekontuen Egonkortasun Legea, eta bera garatzen duten oinarri-legeak).

Egitura juridiko onartezina. Zoaz zu, eta ni jarriko naiz zure tokian; haatik, ezer ez da aldatzen, zuzenean izendatutako karguak salbu. Neozentralismoa eta neoliberalismoa uztarri berean doaz.

Murrizketa eta erreforma bakoitza azkena bailitzan saltzen digute. Hori ez da egia. Benetan, erreforma eta murrizketa bakoitzak hurrengoa iragartzen digu. Etenik ez duen segida bat da, eta honek hondatu egiten ditu ekonomia erreala, enplegua eta eskubide sozial eta laboralak.

Espainian legeak bankuek erabakitzen dituzte. Kongresuan etxe-gabetzeen herri-ekimen legegilearekin gertatutakoa ikustea aski da. Tramitera onartu zuten eta gero parlamentuan erabat hustu zuten. Adar jotzea izan zen.

Apirilaren 26an PPK “Erreformen Plan Nazional” bat iragarri zuen.

PENTSIOEN BESTE ERREFORMA BAT. Hirugarrena izan da bi urtean, eta bigarrena azken hiru hiletan. 67 urtetik aurrera lan egitea pentsioak murriztea basakeria bat da. Zein enpresak nahi ditu 68 urteko langileak, lehia biziko mundu batean? Zer egingo dute enpresek? Erreforma laborala aplikatuta kaleratze erraz eta merkeak egin? Erretiro adina atzeratzeak zer esan nahi duen jabetzeko erreformen multzo guztia hartu behar da aintzat, enpresarioei legeak alternatiba ematen baitie: kaleratzeak. Guri, ordea, ez digu aukerarik ematen.

Diotenez, pobretze eredua hautatzea kanpoan lehiakorragoa izateko da. Hau ere gezurra da. Esportazioak ez du barne-eskariaren gainbehera latza orekatuko. Hau esatea txorakeria bat da.

ETA USTELKERIA. Lotsagarria da PPren moduko alderdi bati, ustelkeria kasuz josita dagoen indar politikoari alegia, murrizketak eta erreformak egiten jarraitzeko legimititatea aitortzea. Herri normal batean hori ez litzateke ametituko.

EUSKAL HERRIA

Ez dago “bilateralitasunik” Estatuarekiko. Hori ipuin bat da. Ez dago “autogobernu”rik, guztia Madrilek erabakitzen baitu (Bruselarekin elkar hartuta). Nafarroan eta EAEn, berriz, men egiten da. “Gastu-sabaia” onartu dute. Defizita bost hamarren gehitzeko beste batzuk hartu duten erabakiari balioa ematen diote, eta ezkutatu egiten digute horrekin batera erreforma eta murrizketa gehiago ezarri nahi dituztela. Hortaz ez dute txintik esaten, ez Iruñean, ez Gasteizen.

Defizit malguagoa onartzeko erabakiaren beste aurpegia opari pozoitu bat da: Pentsioen, langabezia-prestazioen eta lege laboralen beste erreforma lazgarri bat. Hori jakiteko ez zegoen Bruselara joan beharrik. Aspaldian aipatu zuten hori egunkariak. Ez da onargarria 1.150 milioi ordeztu 835 murriztuko direlako pozik egotea, horren truke gainera pentsioak txiki-txiki eginda utziko dituztelarik.

“Gastu-sabaia”ri gehitzen badiogu diru-kutxa publikoak hustu dituen fiskalitatea goitik behera berrikusteko ukapena, horrek aurrekontu-politikan jakineko ondorioa izango du: Murrizketak. Ezin dugu despistatu. “Aurrekontuen luzapena” aipatzen dute, baina bozkatu ere egin ez zen Proiektua aplikatuko dute. votarse.

Agintera iristen direnek murrizketak zurtzeko “jasotako oinordetza” aipatzen dute. Baina ez dute esaten aurreko gobernuek egiten zuten politika eurekin hitzartuta zegoela. Nafarroan zein EAEn. Zerga- eta aurrekontu-politika hitzartu egin dute; diru-kutxa publikoen deskapitalizazioa hitzartu egin dute.

Gai fiskalean ezin dugu onartu puntu txikiren bat aldatzea guztiak bere hortan jarrai dezan. Kapitalari egindako opariak indargabetu behar dira; presio fiskala batez besteko maila europarreraino gehitu, eta iruzurrari jazarri. Gure iritzia lau Foru-Ogasunei buruzkoa da. Badakigu alderdiak fiskalitateaz hitz egiten ari direla -klandestinitan-, eta gardentasuna eta parte hartzeko aukera exijitzen dugu, gizarte-ereduarentzako funtsezko eztabaida honi dagokionez.

Zoritxarrez, ez dakigu ogasunetan ardurak dituen alderdi bakoitzaren posizioa zein den, erretorikatik haratago. Badakigu, ordea, orain arte gaiok nola ebatzi diren: era klandestinoan. Nazka-nazka eginda gaude euskal Tea Partyarekin. Aspertuta gaude lau ogasunetan erretorika hutsal bat entzuteaz, hau ez baita posizio politiko tinko bihurtzen.

Hau aski ez bailitzan, biltzen den diru kopurua gainbehera doa. Ezer aldatu ezean, 2014an murrizketa gehiago aplikatuko da.

Autogobernua defenditzeko aukera handi bat dago, subirania eta auzi sozialak bateratzea. .

BI GAUZA EXIJITZEN DUGU:

1. **Burujabetza sozialeko ekintza baliagarriak.** Injustizia hain nabarmena denean, desobedientzia da geratzen den bide bakarra.
2. **Dauden eskumenak politika sozial baten zerbitzutan ipintzea.** Noski, fiskalitateak hasita. Lau foru-ogasunei exijitzen diegu hau

Gasteizko gobernuak, Iruñekoa bezalaxe, kezkatuago dago CCOO eta UGTekin Elkarrizketa Sozialeko Mahaia lehenbailehen eratzeaz, politikak zuzentzeaz baino. Gasteizko gobernuak badaki, guk bezala, elkarrizketa sozialetik geratzen den gauza bakarra dela parte hartzen duten sindikatuek eta patronalak jasotzen duten finantziarioa. Bide honetatik jotzen badu, legealdi guztirako ildo marraztuta utziko du.

NEGOZIAZIO KOLEKTIBOA

Erreformen xedea patronalei aukera ematea da, soldatei eraso ahal diezaieten. Hau gertatuz gero, are enplegu gehiago galduko da. Gutxiago irabazi eta lan gehiago egingo dugu. Ez diegu patronalari eta gobernuari laguntzarik eman behar soldatak murrizteko estrategian.

EB-KO GOBERNUBURUEN BILERA. HOLLANDEk bilera batean esan zuen murrizteko politikak baztertu egin behar direla. EBZko Draghik ezetz erantzun zion; eutsi egin behar zaiela eta orain helburua soldatak jaistea dela. Bere posizio ideologikoa justifikatzeko produktibitatearen eta soldaten inguruko estatistika manipulatu batzuk erakutsi zituen. Gaur SOLDATEI egiten zaien ERASOA politikaren epizentroan dago, arlo publikoari zein pribatuari dagokionez.

Zer nolako patronala daukagu? CEOek, hots, CONFEBASKek, erreforma -ultraaktibitate- balia dadila eskatzen du negoziazio kolektiboa birrintzeko. Zirkular batean enpresei eskatzen die erabil dezatela erreformak eskaintzen dien aukera eta ultraaktibitatea balia dezatela “behingoz eta goitik behera hitzarmenen edukiak aldatzeko”. “Enpreseen helbururik hoberenak irits daitezke, baldin eta ultraaktibitatea amaitzen bada”. Inork ez beza existitzen ez den patronal bat asmatu.

CONFEBASKek zer dio honetaz? Galdera botatzen du: “Nola da posible berton, soldata eta pentsio hoberenak dauden tokian, gatazka gehiago piztea?” Hori guztia lortzeko borroka egin dugunontzat, guretzat eta gure aurrekoentzat, erantzuna oso erraza da. Borrokaren bidez lortutakoa borrokaren bidez defenditzen da. Horixe da, besterik gabe, gakoa.

Patronalak uste du honez gero ez dagoela ezer negoziatu beharrik. **Mugimendu sindikalarik bi agertoki baino ez dagoela sinetsarazi nahi dio:** nahi duena sektore mailan lortuko du (hitzarmen horiek enpresentzako derrigor bete beharreko minimo ez direlarik), edota ultraaktibitatearen xantaia mugaraino eramango du.

Patronalak badaki zein une bizi dugun, eta hau profitatzea erabaki du. Politika bere esanetara duela, erreforma gehiago emango dizkiotela jakitun delarik (beste erreforma bat eskatzen dute, azkena “motz geratu” omen baita), erabaki du ez daukala ezer hitzartu beharrik. Areago, ausartzen dira esatera Urkulluren aurrekontuetan “gehiegizko gizarte-gastua” dagoela, eta Adegik adinekoen egoitzen gatazkan Gipuzkoako Foru Aldundiaren aurkako demanda bat sartu du esanaz -zinismo hutsaz- “Aldundia inoiz ez zela alderdi batekin lerrokatu”.

Patronalak nor ordezkutzen du? Zein sektore ekonomiko? Ekonomia erreala, finantza-botereek zanpatuta daukatena? Ez. Patronala diru publikotik bizi den lobby bat da, eta bere helburua soziala den guztia deusezte da; gizarte-gastua eta gure soldatak. Ez dituzte zergak ordaindu nahi; “ordaintzeaz” aspertu dira, baina eskatzeaz, ez.

Honelako patronal erreakzionarioak mugimendu sindikalari jarrera bakarra onartzen dio, laguntza emateko jarrera. Horregatik dago ELAren hain haserre.

Erreformen ostean nahi dute sindikalismoak soldata jaitsiera lagun dezala, “elkarriketa soziala” edo lanbidearteko akordio bat medio. Honelako akordioek ez dute ezertarako balio; baina gizartean legitimitatea irabaziko lukete, bien bitartean enpresetan, xantaia-aren poderioz, nahi dutena egiten dutelarik.

Ondorio bat: Negoziazio kolektiboa antolakuntza sindikalaren mailakoa izango da. Negoziazio kolektiboa egin behar da enpresetan, sektore gehienetan patronalak duen kontroletik at. Horretarako enpresak sindikalizatu behar dira. Erreformak funtsezko edukiak enpresetara eramanez, eta eragin du sektoreak jada derrigor bete beharreko minimoa ez izatea. Botere ekonomikoaren FEDEA fundazioak, zeinak gobernuari aholkua ematen baitio, erreforma laboralaren ondoren hau bota zuen: “sindikatuak ez dira enpresetara moldatzeko gauza izango”. Lan egin beharra dago arrazoia izan ez dezaten. Gure erronka nagusia sindikalizatzea da, enpresetako defentsa kolektiboa finkatzeko.

ETSI ALA BORROKATU?

Gero eta jende gehiago txiro izatera kondenatuta egotea onartu behar ote dugu? Ez, gure inguruan lagunek enplegua eta gutxieneko duintasuna galtzen duten bitartean. Ezin dugu jokatu hau gertatuko ez bailitzan.

Greba orokorra baliagarria al da? Bai, Maiatzaren 30eko greba hala izango da. Hau sokatiraren moduko zerbait da. Sokaren mutur batean talde batek amore eman eta indar egiten ez badu, besteak oreka hautsi eta irabazi egiten du. Eurak ahalegin betean ari dira. Gobernuak diote greba orokorra “gizartearen aurkakoa” dela. A zer txorakeria. Tira egin behar diogu sokari; indartsu, gainera. Greba orokor batean jendetza itzela mobilizatzen da: koadroak, militanteak, milaka asanbleetan bildutako jendea. Greba orokor batek aire berria dakar, kiratsa nagusi den uneotan.

Nondik sortu dira kentzen dizkiguten eskubideak? Nola berreskuratuko ditugu? Borroka eginez; borroka kolektiboa, lagunok.

CCOO eta UGTri dei egin diegu greba orokor hau dela-eta. Baina Rajoyk ere gonbite bat egin die. Aukera zuten greba orokorrean gurekin parte hartzeko, baina nahiago izan dute Espainiako gobernuburuaren deia entzun, erretiro adina are gehiago atzeratuko duen adituen batzordean parte hartuz. Zer arraio ari da sindikatu bat bankuetako “adituekin” batera, jakinik zein ondoriotara iritsiko diren?

Ez dago lasai egoteko arrazoirik. Espazio sozialaren lehian sartu beharra daukagu politika alternatibo bat irabazteko. Gobernuak jota daude. Politikak ez du nahi, eta guretzat hori ez da onargarria. Gure itxaropen bakarra mobilizazioa da. Mobilizazioa baita galtzaileen esperantza.

Beldurra gainditu egin behar da. Hori baliatzen baitute beren boterea finkatzeko. Defentsa kolektiboa indartzea beste biderik ez daukagu.

Sistemak desesperantza hedatu nahi du, paralizatuta utziko gaituen depresioa, nork bere burua salbatzea beste asmorik izan ez dezan. Ez diegu halako pozik emango. Eta hori gerta ez dadin mugitu beharra dago, borroka egin beharra. Gure mezua alde guztietara hedatu behar dugu.

Greba orokor honekin batera “GUTUN SOZIAL” bat egiteko asmoa dago; hau izango da erakunde sindikal eta sozial multzo handi batek partekatuko duen ardatz programatikoa.

HIRU PUNTU GARRANTZITSU:

1.- AUTONOMIA SINDIKALA. Gaur inoiz baino areago. ELAk ez du inolako menpekotasunik onartuko, ez alderdi, ez gobernuekiko. Guk gobernuak juzkatzeko egiten duten politikari begiratzen diogu. Sindikatuaren autonomia politikoa defenditzea ezinbestekoa da kontrabotere izan nahi duen edozein proiekturentzat. Hau errespeta dezatela exijitzen dugu.

2. ANTOLAKUNTZA: Gure botere-egiturak indartzeko.

3. MOBILIZAZIOA. Aldaketa ekar dezakeen tresna bakarra da. Borroka kolektiboan, demokrazian, eraikuntza sozialean eta gure herriaren subiranian sinesten dugulako.

**Gora Greba Orokorra
Gora Maiatzaren Lehena
Gora Euskal Herri Sozialista
Gora Euskal Herri Askatua
Gora ELA!**